

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Bilbon egindako Global Social Economy Forum bilkuran Nafarroak bere Ekonomia Sozialeko eredia aurkeztu du

*Eredu ekonomiko hau mugaz haraindi bultzatzeko Europako sei herrialdeen arteko lankidetzaren taldeko lidertza du Nafarroak*

Asteazkena, 2018.eko urriak 3

Bilboko Ekonomi Sozialeko Mundu Mailako foroan Nafarroak duen ekonomia sozialeko eredia aurkeztu dute Politika Ekonomikoko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusi, Izaskun Goñik eta Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkari, Mikel Irujok.



Izaskun Goñi, Bilbon egindako lan bileretariko batean.

Europako markoan ekonomia eredia bultzatzeko eskualdeen arteko lankidetzaren taldeko lidertza du Foru Erkidegoak.

Jakina denez, Nafarroak ekonomia soziala Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (S3) sartu zuen eta ondoren (2017an) Nafarroako Ekonomia Sozialeko Plan Integrala onartu zuen. Plan honek bere helburuen artean zehazten du 2017-2020 tarterako sektoreko enplegua %20 igotzea, gutxi gora-behera 3.300 lanpostu sortuz, horietariko 2.570 enpresako ekimen berri eta jada dauden enpresen sendotze eta handitzearekin. Gainontzeko 730ak gizarte-inklusioko ekimenen bitartez. Horretarako, planak bost lerro estrategiko jasotzen ditu: kalitatezko lana eta jasangarria; gizarte berrikuntza; enpresen garapena; parte hartze gobernantza; eta sektorekako garapena. Bost lerro hauek 16 helburu eta 50 ekintza zehatz jasotzen ditu, gehinak Politika Ekonomikoko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendaritzak eta Nafar-Lansarek gidatuta, eta Eskubide Sozialak, Landa Garapen, Ingurumena eta Toki Administrazioa eta Hezkuntza departamentuen parte hartzearekin. Izaskun Goñi, zuzendari nagusiak hainbat ekimen berri aipatu zituen, hala nola, zentro teknologien barruan dagoen Berrikuntza Sozialerako Unitatea eta Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak ANELen laguntzarekin eskualdeen arteko lankidetzaren bitartez ekonomia soziala bultzatzeko burutzen ari diren monetizazio sozialeko ikerketak.

Zentzu horretan, Planaren kudeaketarako eta Gobernuak bultzatzen dituen ekintzek emaitza onak lortzeko nafarroan ekonomia sozialeko enpresen elkarteek duten garrantzia azpimarratu dute.

## **Europar erreferente**

Europako Komisionak aintzat hartu zuen Nafarroak proposatutako ereduak, zeinak ekonomia soziala bultzatzeko lankidetzaren talde bat sortzea proposatu zuen. Berau, Nafarroaren lidertzarekin garatzen da eta berrikuntza industrialen gaikako plataforma deiturikoen barruan kokatzen da. Aipatutako lankidetzan, Emilia Romagna, Lapland, Murcia, Orebrô, Eslovenia eta Nafarroako eskualdeak batzen dira eta mutua eta kooperatibek beraien ekonomia sozialeko ekintza guztiak barne merkatuan zabaldu ahal izateko mugaz haraindiko eragiketarako egitea animatzea du xede, eskualdeen arteko lankidetzarako ekintzen bitartez.

Zehazki Europako ekonomia sozialeko lankidetzak honako helburua du: ekonomia sozialeko taldeak sortzea; Europako eskualde ezberdinetako ekonomia sozialeko enpresa ezberdinen artean baliozko kateak sortzea; eta enpresen eta herrialdeetako agente ezberdinen artean lankidetzaren hobetzea, batez ere gaitasun ekonomikoak eta teknologikoak dituztenekin.